

EAEko etxeek %37 handitzen dute gastua Eguberrietako elikagaietan, eta EROSKIk 44 milioi euro inbertituko ditu sustapen berezietan

- EAE eta Madril dira gastua handitzen liderrak, %37ko igoerarekin. Espainiako etxeek, berriz, %30 igotzen dute batez beste.
- Eguberrien kategoriako produktuek abenduko gastu guztiaren %46 hartzen dute. Produktu izarrak dira bonboiak, arrain eta itsaski fresko zein izoztua eta edariak.
- Jai horietako kategoriak hiru erosketetatik bitan daude presente, eta batez beste 120 euroko xahutze gehigarria ekarriko dute Espainia mailan abenduan.
- Bezero soslai guztiek gastatzen dute gehiago abenduan eta Eguberrietako kategorietan, baina, seniorrek elikagaietan eta freskoetan gastatzen badute, gazteek elikagaiak ez diren beste kategoria batzuetan gastatzen dute.
- EROSKIk "saski propio zoriontsua" kanpaina aktibatu du. Horrekin, Eguberri kontzientego eta eskuragarriago batez gozatzerako gonbidatzen du, eta marka propioa bultzatzen du, kalitaterako eta aurrezpenerako berme bezala. Horrez gain, arratsalde honetan Eguberrietako saski erraldoi bat ipiniko du Sestaoko Kasko plazan.

Elorrio, 2025eko azaroaren 14a.- EAE liderra da, Madrilekin batera, Eguberrietako elikagaien gastu emendatzean, %37ko igoerarekin, eta haien ondotik Gaztela-Mantxa dator (+%36), [EROSKI](#)ren arabera. Espainiako batez bestekoa, berriz, %30 inguru igotzen da. Horrek esan nahi du, etxeek batez beste 120 euro gehiago xahutzen dituztela. Horretarako, erosketak maiztasuna handitu egiten da (11 bisita, hileko izan ohi diren 10 beharrean), eta Eguberrietako ohiko kategorien pisua handitzen da, hala nola bonboiena, arrain eta itsaski fresko zein izoztuena eta edariena, nabarmentzekoak jatorri izena duten ardoak eta apardunak. Datuak egonkor mantentzen dira aurreko urtearekin alderatuta.

Autonomia erkidegoen konparaketa familia tipologiaren arabera

Eroskiren arabera, autonomia erkidego batetik bestera aldea dago gastu gehigarrian: **EAE eta Madril** liderrak dira, **%37** handitzen baitute, eta oso hurbiletik dute **Gaztela-Mantxa** (+%36).

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI

Nora Garay

Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66 19

kaixo@enemasene.eus

Nahiz eta familia guztiek gehiago gastatu egun horietan, denek ez dute berdin inbertitzen beren aurrekontua: **seniorrek %40 emendatzen dute**, eta janari freskoetara eta elikagaietara bideratzen dute; horrek berresten du jaietako anfitrioi nagusiak izan ohi direla egun horietan.

Gazteek, berriz, bikoiztu edo hirukoiztu egiten dute gastua elikagaiak ez diren produktuetan, batez ere **jostailuetan eta bideojokoetan**.

Eguberrietako kategoriak: orgatzoko protagonistak

Abenduan gastatzen denaren ia erdia (%46) Eguberrietan tipikoak diren produktuetara bideratzen da. Horiek bihurtzen dira erosketak saskiko protagonista handiak. Hauek dira dende abenduan eguneko gehien eskatzen dituzten produktuak eta erosketetan igoera handiena izaten dutenak: **turroiak, bonboiak eta gozo tipikoak**, (x8); **urdaitegikoak**, hala nola iberikoak (x3); **cavak, ardoak eta beste edari batzuk** (x3); **arrain eta itsaski freskoak edo izoztuak** (x2) eta **haragi hautatuak**, hala nola arkumea eta behi haragia (x2).

Hipermerkatuek beren posizioa sendotu dute, eta gogokoenak izaten dira Eguberrietako erosketetan. Kontsumitzaileek bertan egiten dituzte, bolada horretan, gasturik handienak (+%18), eta saski eta bisita kopuruak ere hor handitzen dira gehienbat (+%20). Salmentei dagokienez, %4 handitzen dira, eta, urteko gainerakoarekin alderatuta, batez beste %20 gehiago gastatzen da.

Inbertsioak eta sustapenak familiek aurrezteko

Bezeroen **premiei** erantzuteko, **EROSKIk 44 milioi euro inbertituko ditu promozio berezietan** Eguberri hauetan. **“Saski propio zorionsua”** kanpainak deskontu garrantzitsuak dakartza 100dik gora produktu izarretan; besteak beste, arrainetan, haragietan, kontserbetan, fruitu lehorretan, cavetan, ardoetan eta gozoetan. Horretaz gainera, bigarren unitatea %70era eskainiko da **2.000 produktutan**, eta kupoi pertsonalizatuak eta ezusteko promozioak izango dira. Gaur egun, salmenten %29 marka propioko produktuei dagokie; gama bezala sendotu egin da, baita Eguberrietan ere, kalitate-prezio aldetik bikaina delako eta etengabe alternatiba osasungarri eta tokikoetara eboluzionatzen doalako.

2025eko Eguberrietako joerak eta aukerak

Espainiako Bankuak dio kontsumitzailearen konfiantza handitzen ari dela, eta Eguberriok dinamismo handiagoa hartuko dutela kontsumoaren aldetik.

EROSKI – Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO – Agencia de Prensa de EROSKI

Nora Garay

Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66 10

2021etik aurrera, ikusten da Eguberrietako kategorien erosketak atzeratzeko joera egon dela. 2023an, dinamika hori zuzendu egin zen zertxobait, nahiz eta aurreko mailetara ez itzuli. 2024an, aldaketa argiagoa ikusten da, urrian egindako erosketetan pisu handiagoa hartu baitu aurreko urteekin alderatuta (+1 puntu); dena den, oraindik abenduak kontzentratzen ditu Eguberrietako produktuetan egiten diren gastuen %50 inguru.

*"Aurten ikusten dugu erosketak portaera planifikatuagoa doala, eta bezeroek konparatu, aurreratu eta ahal den gehiena aprobetxatzen dituztela sustapenak", azaldu du **Beatriz Santosek, EROSKI Taldeko zuzendari komertzialak**. "Nahiz eta inflazioa aurreko urteekin alderatuta apaldu egin den, aurrezteak da oraindik ere lehentasuna. Hori dela eta, gure proposamena indartu egin dugu eskaintza eta kupoi pertsonalizatu gehiagorekin; horrela, familiek Egunerriak gozatu ahalko dituzte, uko egin gabe kalitateari eta gogokoen dituzten produktuei.*

Estrategia horrekin, **EROSKI**k sendo jarraituko du Espainiako etxeetako aliatu garrantzitsu izanez, bete-beteko erosketak esperientzia eskainiz eta kalitatea, aurrezkiak eta hurbiltasuna konbinatuz.

Saski erraldoia Sestaon

Sestaoko Kasko plazan, Eguberrietako saski handi bat ipiniko dute, gaur, ostirala, 17:30etik 20:30era, keinu egiteko EROSKI egunotarako aktibatu duen "Saski propio zoriotsua" kanpainari. Era berean, bertaratzen direnek doako tailerrak izango dituzte opariak biltzeko eta beste aktibitate batzutarako; ez dago izena eman beharrik.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI

Nora Garay

Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66 10